 - [ContainsHtml](#). Zehazten du ea kate batek HTML edukia duen.
 - [EsNumero](#). Zehazten du ea kate batek zenbaki oso bat adierazten duen.
 - [EsTelefono](#). Baliozkotzen du ea kate batek Espainiako telefono-zenbaki baten formatua duen. Zenbakia 6, 7 edo 9 zifrekin hasi behar da eta 9 digitu izan behar ditu.



- [*EsNumeroCuatroDecimales*](#). Baliozkotzen du ea kate batek 4 dezimalera arteko zenbaki bat adierazten duen. Zeinu negatiboak ahalbidetzen ditu eta koma erabiltzen du dezimalak bereizteko.
- [*EsNumeroDecimales*](#). Baliozkotzen du ea kate batek X dezimalera arteko zenbaki bat adierazten duen. Zeinu negatiboak ahalbidetzen ditu eta koma erabiltzen du dezimalak bereizteko.
- [*LongitudTexto*](#). Baliozkotzen du < karaktererik gabeko testu batek X baliotik beherako gehieneko luzera ote duen.
- [*LongitudTextoString*](#). Baliozkotzen du testu batek X baliotik beherako gehieneko luzera ote duen.
- [*LongitudDecimales*](#). Baliozkotzen du ea zenbaki batek X dezimal dituen.
- [*IntervaloNumerico*](#). Baliozkotzen du ea zenbaki bat zenbaki-tarte baten barnean dagoen.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.Comun.ServicioLogger*](#) mota erabili ILogger interfazea ezartzeko eta hari anitzeko log-trazuak modu asinkronoan erregistratzeko.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.BaseConsultas*](#) mota erabili datu-base baten informazioa eskuratzeko, eguneratzeko edo ezabatzeke.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.ConsultasFichero*](#) mota erabili datu-basean gordetako fitxategi baten informazioa eskuratzeko, eguneratzeko edo ezabatzeke.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.ConsultasSeguridad*](#) mota erabili segurtasun-eskemaren informazioa eskuratzeko:
 - *Erabiltzaile-aplikazioak eskuratu.*
 - *Erabiltzaile edo aplikaziorako rolak eskuratu.*
 - *Saioa hasteko erabiltzailea eskuratu.*
 - *Erabiltzailea eskuratu ordena-zenbakiaren arabera.*
 - *Aplikazio-erabiltzaileak eskuratu.*
 - *Aplikazio-erabiltzaileak rolaren arabera eskuratu.*
 - *Aplikaziorako email-hartzaileak eskuratu.*
- [*Cabb.BaseNet8.Util.PredicateBuilder*](#) mota erabili adierazpen-predikatuak dinamikoki eraikitzeke; konbinatu egin daitezke LINQ kontsulta konplexuagoak sortzeko. Func (Of T, Boolean) adierazpenak erabiltzen dira, bildumak iragazteke erabili daitezkeen predikatuak adierazten dituztenak.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.Criptografia*](#) mota erabili algoritmo batean oinarrituz testu zifratu bat desenkriptatzeko. Funtzio hori erabiltzen da enkriptatuta dauden segurtasuneko datu-baseko erabiltzailea eta pasahitza eskuratzeko.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.BBDEncrypt*](#) mota erabili datu-baseen zifratutako eremuak desenkriptatzeko.
- [*Cabb.BaseNet8.Util.eMail*](#) erabili; mezu elektronikoak bidaltzeko aukera eta erregistro ezberdinak ditu.

D. ERRENDIMENDUA

Migratutako aplikazioek eta BBUPk garatzen dituen aplikazio berriek errendimendu ona izan beharko dute. Hau da, funtzioak azkar, efizienteki eta egonkor exekutatu beharko dituzte lan-karga jakin batean. Erantzuteke eta erabiltzeko abiadura egokia izan beharko da eta, gainera, diseinatzen direnean eskalagarritasuna kontuan hartu beharko da erabiltzaile- eta datu-kopuruari dagokienez eta exekuzioko errore-tasa oso baxua izan beharko da.

Hauek dira kontuan hartu beharreko alderdi batzuk:



- Orrien artean erraz nabigatzea. Orri batean ezarritako edukia eta baliozkotzeak ezin dira sarbidea atzeratzeko arrazoi izan. Hau da:
 - *Orriaren kodifikazioak ziurtatu behar du ez dela beharrezkoa ez den kargatzerik egiten.*
 - *Zerrendetan bistaratu beharreko balioek eskuragarri egon behar dute.*
 - *Eremuen gaineko baliozkotzeen pisua minimizatu egin behar da.*
- Datuak eskuratzea eta tauletan ikustea (gridetan):
 - *Bistaratzea beti orrialdeka egingo da; beraz, gridak ez dira masiboki kargatu behar.*
 - *Griden goiburuetako iragazkiek ez dute errendimendua gutxitu behar.*
 - *Hierarkiak dituzten gridak (estekatuak) maneigarriak izan beharko dira.*

E. IDAZMAHAI BAKARRA TXERTATZEA

Aplikazioak egokitu egin behar dira ezaugarri hauek izan ditzaten eta horiei esker **idazmahai bakarrean** integratu daitezen.

6.E.1.PARAMETRIZATU DAITEKEEN GOIBURUA

Idazmahai bakarrak goiburu eta hizkuntza-aldaketa propioak ditu. Horrenbestez, aplikazioak parametroen bitartez konfiguratzeko moduan izan behar dute goiburuaren eta hizkuntza-aldaketaren bisualizazioa. Horrela, zati hori gabe aurkeztu ahalko dira idazmahai bakarretik edo berarekin, zuzenean sartuz gero.

6.E.2.SARBIDEAK KUDEATZEA

Idazmahai bakarrera sartzeko direktorio aktiboaren (single sign-on) SSO bidezko ziurtagiriak erabiltzen dira. Modu horretan, erabiltzaileak sartzeko aukera du berriro ere lanpostura sartzeko erabili zituen ziurtagiriak sartu behar izan gabe. Gainera, erabiltzaileen roletan eta baimenetan oinarritutako idazmahaitik dagokion aplikazioetara sartzeko aukera egongo da. Beraz, aplikazioek kontuan hartu beharko dute idazmahai batetik eskatzen direnean segurtasuna jada egiaztatuta dagoela, erabiltzaileak baimena duela aplikaziora sartzeko eta idazmahaiarekin partekatutako cookiek eragiten dioten rolen eta baimenen informazioa eskuratu beharko da.

6.E.3.SARRERA-PUNTUAK

Idazmahai bakarrak sarrera-ontzia du eta bertan erabiltzaileak konfiguratu egin ditzake erabili ditzakeen aplikazioen Widget-ak eta, gainera, aplikazioaren hasierako orrira joateko zuzeneko sarbidea du. Horrenbestez, migratu beharreko aplikazio bakoitzean identifikatuko da zein den bere hasiera-orria gainerako sarrera-puntuekin (widgetak) eta elementu horiek idazmahai bakarretik irisgarriak izateko egokitzapenak egin beharko dira.

6.E.4.APLIKAZIOEN ARTEKO ERLAZIOA

Idazmahai bakarrak aukera du interfaze berean aplikazioen orri ezberdinak nahasteko. Orri horietako datuak elkarren artean lotuta egoten dira eta garrantzitsuak dira azken erabiltzailearentzat. Orri horiek ez dute zertan bat etorri behar aurreko atalean aipatu diren widgetekin.



Gainera, erabiltzaileak horietako batekin elkarreragiten badu, dagokion aplikazioak informazioa horren arabera egokitu beharko du. Beraz, aplikazioek postMessage metodoan oinarritutako komunikazio-sistema bat izan behar dute. Horri esker, idazmahai bakarrari informatuko diote zein eduki aurkeztu behar duen.

6.E.5. IKONOA

Aplikaziorako ikono bat diseinatzeak esan nahi du irismena eta edukia modu bisualean irudikatu behar dituela idazmahaitik erabili ahal izateko.

6.E.6. IDAZMAHAIA KONFIGURATZEA

Idazmahaitik eskuragarri egongo diren aplikazioen informazioa: widgeta, sarbide-ikonoa eta aplikazioen menuaren barnean duen kokapena. Idazmahaiak informazio hori eskuratzeko erabiltzen dituen tauletan erregistratu behar da.

F. SEGURTASUNA

Irtenbideak Segurtasuneko Eskema Nazionalak (ENS) kategoria ERTAINEKO sistema baterako ezarritako zuzentzarauak bete beharko ditu.

Bezeroen (nabigatzailea eta mugikorrek aplikazioa) eta zerbitzariaren arteko komunikazio guztia HTTPS protokoloaren bidez egingo da.

Neurriak ezarriko dira zaurgarritasun komunak prebenitzeko (OWASP Top 10), baita SQL injekzioa, Cross-Site Scripting (XSS) eta abar ere.

Datu sentikorak eta gertuta dauden artxiboak modu seguruan gordeta egon beharko dira.

7. EGIN BEHARREKO ZEREGINAK

Adjudikaziodunak proiektua bete beharko du fase hauek betez eta aipatutako agiriak entregatuz.

A. PROIEKTUAREN PLANA

Deskribapena: Adjudikaziodunak proiektuaren plan xehea aurkeztuko du eta betearazpen guztirako ibilbide-orria izango da.

Entregatzekoa: Proiektuaren plana (besteak beste, kronograma, mugarriak, baliabideak, arriskuen matrizea eta komunikazio-plana).

B. BALDINTZAK ANALIZATZEA

Deskribapena: Lan-saioak egingo dira BBUPren ataletako arduradunekin baldintza funtzionalak zein teknikoak baliozkotzeko, xehatzeko eta lehenesteko.

Entregatzekoa: Softwarearen baldintzak zehazteko agiria (ERS).

C. IRTENBIDEAREN DISEINUA

Deskribapena: Arkitektura, erabiltzailearen esperientzia, INTERFAZE bisuala eta plataformaren datu-eredua diseinatuko dira.

Entregatzekoak:

- Diseinu teknikoaren agiria (DDT).



- Webguneko eta mugikorretako interfazeen prototipo nabigagarriak edo *wireframeak*.
- APIren diseinu-agiria.

D. IRTENBIDEAREN GARAPENA

Deskribapena: Software-osagai guztien eraikuntza-fasea onetsitako diseinuarekin bat etorritu. Gehitze-entregak egingo dira BBUPren teknikariek baliozkotu ditzaten.

Entregatzekoa: Garapen- edo integrazio-inguruan hedatutako softwarearen bertsio funtzionalak.

E. IRTENBIDEA EZARTZEA ETA PROBAK

Deskribapena: Aurre-ekoizpeneko eta ekoizpeneko inguruetako irtenbidea hedatzea. Proba-plana egitea eta UAT koordinatzea.

Entregatzekoak:

- Proba-plana.
- Proben emaitzen txostena.
- Erabiltzailearen onarpen-akta (administrazioak sinatuta).
- Instalatzeko eta administratzeko eskuliburuak.

F. EZARRI ONDORENGO PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA-ZERBITZUA

Deskribapena: Langile teknikoak eta funtzionalak trebatzea eta berme-aldiko laguntza-zerbitzua ematea.

Entregatzekoak:

- Erabiltzailearen eskuliburua.
- Prestakuntza-materiala.
- Laguntza teknikoaren zerbitzua ekoizpenean jarri eta hurrengo 12 hilabeteetarako.

8. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

A. LANTALDEAREN OSAERA

Lizitatzailerak proposatutako lantaldeak honako gutxieneko profilak izan beharko ditu eta esperientzia curriculumaren bidez egiaztatu beharko dute (A eranskinaren arabera):

1 proiektu buru: Gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko du software-garapeneko proiektuak kudeatzen, ahal dela, metodologia arinekin. PMP edo antzeko ziurtagiriak baloratuko dira.

2 analista programatzaile Gutxienez 5 urteko esperientzia baldintza teknikoen atalean deskribatu diren inguruetan eta tresnetan baldintzak eta garapenak zehazten eta ezartzen.

BBUPk aukera izango du proposatutako profilak egokiak diren baliozkotzeko eta baldintzak betetzen ez badituzte, ordezkatuak izan daitezkeen eskatzeko.



9. PROIEKTUAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA

Jarraipen Batzordea sortuko da. Bertan egongo dira adjudikaziodunaren proiektu burua eta BBUPren kontratu-arduraduna.

Astean behin jarraipen-bilerak egingo dira eta adjudikaziodunak aurrerapen-txostena aurkeztuko du honakoekin:

- Aldi horretan betetako lanak.
- Hurrengo aldirako planifikatutako lanak.
- Hasierako planarekiko desbideraketak.
- Identifikatutako arriskuak eta arazoak eta arintze-planak.

10. ZERBITZU-MAILAREN AKORDIOAK

Zerbitzu-mailaren akordiotzat (aurrerantzean, ANS) jotzen dira BBUPk eskatzen dituen balioak, enpresa adjudikaziodunaren erantzun-ahalmena adierazten duten eta zerbitzuaren lanetan bete behar diren parametroei dagokienez.

Planteatutako proiektua egiten duenean, adjudikaziodunak kalitate-maila batzuk bete beharko ditu bermatzeko egindako lanak efizienteak direla. Ondoren, ANS bat osatzen duten adierazleak eta atalaseak aurkezten dira. Lizitatzailerak onartu egiten ditu oinarri teknikoen plegu honetarako erantzun bat aurkezten duenean. Bi adierazle-talde daude:

- Lanei eta funtzionalitateei lotutako adierazleak.
- Emandako laguntza-zerbitzuaren kalitateari lotutako adierazleak.

Balorazio positiboa emango zaie lizitatzailerak planteatutako Zerbitzu Mailaren Akordioa hobetzeko proposamenei, horrela, bermatzeko proiektua arrakastatsua izango dela eta lanak kalitatezkoak izango direla.

A. LANEI ETA FUNTZIONALITATE BERRIEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

Adjudikaziodunak kontuan hartu beharko ditu plangintzaren desbideraketari eta entregatzeko kalitateari buruzko adierazleak.

Plangintzatik desbideratzea

Plangintzatik desbideratzea izango da hornitzaileak berandu entregatzea oinarrizko produktuak, planifikatutako mugarriak edo lan-aginduak, proiektu buruaren bidez adjudikaziodunaren eta BBUPren adostutako plangintzan ezarritakoaren arabera.

Desbideratzea izango da produktuak entregatzeko benetako egunaren eta planifikatutako egunaren arteko diferentzia.

Betetze-maila plangintza-fasean zehaztutako proiektuaren mugarri eta entregatzeko guztietarako neurtuko da, irizpide hauen arabera:

Betetze-maila	Betetze-irizpidea
Maila berdea	2 aste baino gutxiagoko desbideraketa
Maila horia	2 eta 3 aste arteko desbideraketa
Maila gorria	3 aste baino gehiagoko desbideraketa



Zehaztutako mailak urratzen badira **zehapenak aplikatuko dira**, hornitzaileak berrikuspenean justifikazio xehatua egin ezean eta BBUPk onetsi ezean.

Entregatzekoen kalitatean egindako desbideraketak

Adjudikaziodunak bermatu beharko du proiektuan sortutako entregatzekoak, agiriak edo produktuak kalitatezkoak direla eta zuzen entregatzen eta ezartzen direla.

Entregatzekoen kalitatea ziurtatzeko, BBUPk berrikusi eta ziurtatu egingo ditu eta entrega baloratzeko txostena sortuko du. Bertan jasoko dira Desadostasun handi eta txiki posibleak.

Desadostasun txikia izango da konpondu beharreko detektatutako arazoa, baina prozesuaren ezarpena arriskuan jartzen ez duena.

Desadostasun handia izango da konpondu beharreko detektatutako arazoa eta, gainera, prozesua bermekin ezartzea galarazten duena.

Desadostasun txikiak eta handiak badaude, adjudikaziodunak entregatzekoaren bertsio berria sortu beharko du, detektatutako arazoak konponduz.

Betetze-maila proiektuaren entregatzeko bakoitzerako neurtuko da, irizpide hauen arabera:

Betetze-maila	Betetze-irizpidea
Maila berdea	3 desadostasun txiki baino gutxiago
Maila horia	3 desadostasun txiki edo gehiago
Maila gorria	Desadostasun handiak egotea edo detektatutako eta komunikatutako desadostasunak errepikatzea

Zehaztutako mailak urratzen badira **zehapenak aplikatuko dira**, hornitzaileak berrikuspenean justifikazio xehatua egin ezean eta BBUPk onetsi ezean.

B. LAGUNTZA-ZERBITZUAREN KALITATEARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

Adjudikaziodunak jasotako gorabehera guztiak BBUPn ezarritako JIRA Softwarean jasota egon beharko dira eta lehentasunaren arabera sailkatuko dira honela:

- Lehentasun kritikoa edo premiazkoa: erabiltzaile bati baino gehiagori eragiten diete eta zerbitzua ez da erabilgarri egoten.
- Lehentasun altua: erabiltzaile bati eragiten dio eta zerbitzua ez da erabilgarri egoten.
- Lehentasun normala: zerbitzuaren kalitatea galtzen da, baina arazoak ez du galarazten erabiltzaileak oinarriko funtzioak egin ahal izatea.

Edonola ere, BBUPk gorabehera baten lehentasuna ezarri edo aldatu ahal izango du egokitzat jotzen dituen irizpideak betez; normalean gorabeheraren larritasunak, eraginek edo irismenak sortutakoa izaten da.

Laguntza-zerbitzuaren kalitateari lotutako adierazleak, kasu honetan, kontsultak eta gorabeherak ebaztearekin eta horiei ematen zaien erantzunarekin lotutakoak dira.

Zerbitzuaren eskuragarritasuna

Adierazlea	Definizioa
Zerbitzuaren eskuragarritasuna (DIS)	Sistemaren azpiegiturak eta zerbitzuak hilabetean martxan dauden denboraren ehunekoa da.

Prestasun osoa edo % 100ekoa izango da urteko 365 egun naturaletan martxan egotea, salbu eta mantentze-lan prebentiboetarako berrikuspenak egiteko nahitaez gelditzeko egunak; egun horiek idatziz jakinarazi beharko dira. Adierazle hori formula honen bidez kalkulatu da:

$$DIS (mes) = \frac{T_{tot} - T_{nodisp}}{T_{tot}} \times 100(\%)$$

Non T_{tot} : Aintzat hartutako aldiaren denbora guztia (minutuak)

T_{nodisp} : Bereizita eta modu gehigarrian zenbatutako azpiegituren eta zerbitzuen prestasunik gabeko denboren batura (minutuak hilabete horretan), betiere, gorabehera batean elkarrekiko menpekotasunik ez badute: ahots-azpiegitura, datuena, zerbitzariak, biltegiatzea eta kudeaketatresnak.

Prestasuna kalkulatzeko baldintza hauek kontuan hartuko dira:

- Prestasunik gabeko denboraren barnean zenbatuko dira bakarrik zerbitzu-falta sortu duten gorabeherak.
- Prestasunik gabeko denboretatik kenduko dira BBUPk onetsitako geldialdiak. Geldialdiaren baldintzak aurretiaz adostu beharko dira BBUPekin.
- Prestasunik gabeko denboraren barnean ez dira zenbatuko BBUPri egotz dakizkiokeen eta proiektuaren zuzendaritza teknikoak halakotzat onartzen dituen kausengatik sor litezkeen zerbitzu-gelditzeak. Elektrizitatea mozten bada edo adjudikaziodunaz haratagoko bestelako kausaren bat gertatzen bada eta sistema automatikoki berreskuratzen ez bada, BBUPk esan dezake sistema berreskuratzeko denbora prestasunik gabeko denbora izan dela. Izan ere, adjudikaziodunaren obligazioa da sistema prest izatea zerbitzuak altxatzeko, konfigurazioak zuzen gordeta izatea, etab.
- BBUPk hornitzaileak izendatutako langileei instalazioetara sartzen utziko die matxurak konpontzeko edo zerbitzua erabilgarri jartzeko. Baimena ematean gerta daitekeen berandutze-denbora ez da prestasuna kalkulatzeko erabiliko.
- Ez dira prestasunik gabeko denboratzat zenbatuko ezinbesteko kausek (suteak, uholdeak, etab.) sortutako zerbitzu-galerak, gutxienez hasierako 24 orduetan. Ondoren, % 25en zenbatuko dira.

Balorazio positiboa emango zaie adjudikaziodunak planteatutako Zerbitzu Mailaren Akordioa hobetzeko proposamenei, horrela, bermatzeko proiektua arrakastatsua izango dela eta lanak kalitatezkoak izango direla.

Zerbitzu-prestazioaren eraginkortasuna egiaztatzeko, enpresa adjudikaziodunak hilabeteko jardueren txosten teknikoetan sartu beharko ditu kalitate-parametroen emaitzak. Konprometitutako mailek beti berdindu edo hobetu beharko dituzte gutxieneko mailak (halakoak ezarrita daudenean), eta konprometitutako mailen azpitik aplikatuko dira ezarritako zehapenak.

Kontsultei eta gorabehereri erantzutea eta horiek ebaztea

Adierazlea	Definizioa
Ebazpen-ehunekoa 4 ordu baino gutxiagokoa izatea lehentasun kritikoa duten gorabeheretarako (SOL- 1)	Kritiko gisa sailkatutako gorabehera guztiak, zeintzuen ebazpen-denbora 4 ordu baino gutxiagokoa izan den kritiko gisa sailkatutako gorabehera guztiak aintzat hartuta.
Lehentasun kritikoa duten gorabehera-kopurua, ebazteko 3 lanegun baino gehiago behar izan direnean (SOL-1b)	Kritiko gisa sailkatutako gorabehera-kopurua, zeintzuen ebazpen-epea 3 lanegun baino gehiagokoa izan den.
Ebazpen-ehunekoa 8 ordu baino gutxiagokoa izatea lehentasun	Altu gisa sailkatutako gorabehera guztiak, zeintzuen ebazpen-denbora 8 ordu baino gutxiagokoa izan



handia duten gorabeheretarako (SOL-2)	den altu gisa sailkatutako gorabehera guztiak aintzat hartuta.
Lehentasun altua duten gorabehera-kopurua, ebazteko 7 lanegun baino gehiago behar izan direnean (SOL-2b)	Altu gisa sailkatutako gorabehera-kopurua, zeintzuen ebazpen-epea 7 lanegun baino gehiagokoa izan den.
Ebazpen-ehunekoa 16 ordu baino gutxiagokoa izatea lehentasun arrunta duten gorabeheretarako (SOL-3)	Arrunt gisa sailkatutako gorabehera guztiak, zeintzuen ebazpen-denbora 16 ordu baino gutxiagokoa izan den arrunt gisa sailkatutako gorabehera guztiak aintzat hartuta.
Lehentasun arrunta duten gorabehera-kopurua, ebazteko 15 lanegun baino gehiago behar izan direnean (SOL-3b). Arrunt gisa sailkatutako gorabehera-kopurua, 15 lanegun baino gehiago behar izan direnean konpontzeko.	

Eskatutako zerbitzu-mailak

Aurreko adierazleetarako adjudikaziodunak zerbitzu-mailen atalase hauek bete beharko ditu:

Adierazlea	Zerbitzu-mailaren atalasea
DIS	$\geq 99,9\%$
SOL-1	$\geq 90\%$
SOL-1b	≤ 2
SOL-2	$\geq 85\%$
SOL-2b	≤ 4
SOL-3	$\geq 80\%$
SOL-3b	≤ 6

Adierazle horien aplikazio-aldia kontratuaren indarraldian izango da, sarrerako trantsizio-aldia salbuetsita. Adjudikaziodunak konpromisoak urratzen baditu zehapen ekonomikoak jarri ahalko dira eta azkenik kontratua suntsitzeko aukera egongo da, administrazio-klausulen pleguaren baldintzak betez.

Arazoak konpontzeko denborak adjudikaziodunaren eskumenaren barnean zenbatuko dira eta ez zaizkio egotziko berari ez dagozkion atzerapenak.

ANSren adierazleak gorabeherak kudeatzeko aplikazioan neurtuko dira. Bertan sailkatzen eta erregistratzen da horrekin lotutako jarduera guztia. Adjudikaziodunak hilean behin txostenak aurkeztu beharko ditu. Txosten horietan, gutxienez, ezarritako ANSen jarraipena egiteko informazioa jasoko da.

11. TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA

Kontratuaren xede diren lanak egiten diren bitartean, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du BBUPk izendatutako pertsonen eskatzen duten informazioa eta dokumentazioa emateko, lanak zer egoeratan egiten diren eta sor daitezkeen arazoak eta arazo horiek ebazteko erabiltzen diren teknologiak, metodoak eta tresnak erabat ezagut ditzaten.

Halaber, enpresa adjudikaziodunak beharrezko prestakuntza eman beharko die BBUPko talde teknikoei eta kudeaketa-taldeei, kontratuaren xede diren lanak garatzearen ondoriozko produktuei dagokienez. Gainera, proiektuan zehar erabili diren eta lan horiek ezartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak transferitu beharko ditu.

Kontratua bukatzen denean adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du, hala dagokionean, garapen-lanetako produktuen azken entrega egiteko. Orokorrean, entregatzeko moduan eskatuko da garatutako sistemak zuzen instalatzeko, funtzionatzeko, erabiltzeko, mantentzeko eta monitorizatzeko informazio guztia.

Dokumentazio guztia eguneratuta entregatu beharko da. BBUPk erabakiko du aurkeztutako dokumentazioa hobetu, osatu, zabaldu edo beste era batera landu behar den, hobeto aprobetxatzeko.

12. LANEN SEGURTASUNA ETA KALITATEA

Adjudikaziodunak behar diren kalitate-kontrolak neurriak hartu behar ditu eraginkortasunez, kontratua egikaritzean garatutako jardueren optimizatzeko eta entregatutako softwarearen kalitatea ziurtatzeko, BBUPk ezarritako zuzentarauen arabera, eta bermatu behar du zerbitzu berriek betetzen dituztela ezarritako baldintzak eta estandarrak, errendimendu eta segurtasun egokiak dituztela eta baliabideak ezin hobeto erabiltzen dituztela.

BBUPk, bestalde, kalitate-kontrolak eta garatutako jardueraren kalitatea ziurtatzeko ekintzak ezarri ahal izango ditu software-garapenak ekoizpen-ingurunera pasatu aurretik, zehaztutako politiken eta estandarren arabera, eta ezarritako prozeduren eta tresnen bidez.

13. ZIBERSEGURTASUNA

Proposamenek kontuan hartu beharko dute informazio arautua behar bezala babesteko eskatzen diren oinarritzko printzipioak eta gutxieneko baldintzak betetzen direla.

Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera, kontuan hartuta gaur egun maila ertaina bete behar dugula, baina baliteke etorkizunean maila altua bete behar izatea, hodeian ematen diren zerbitzuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Sektore publikoko erakundeei hodeian zerbitzu bat ematen dieten sistemak segurtasun-neurri guztiak bete beharko dituzte, ematen duten hodeiko zerbitzu-ereduaren arabera: Softwarea zerbitzu gisa (Software as a Service, SaaS), plataforma-zerbitzu gisa (Platform as a Service, PaaS) eta azpiegitura-zerbitzu gisa (Infrastructure as a Service, IaaS), aplikatzekoak diren CCN-STIC gidetan definituta.
- Hirugarrenek emandako hodeiko zerbitzuak erabiltzen direnean, zerbitzu horien euskarri diren informazio-sistemak Segurtasun Eskema Nazionalarekin bat etorri beharko dute edo CCN-STIC gida batean garatutako neurriak bete beharko dituzte. Gida horretan, besteak beste, honako hauei buruzko betekizunak jasoko dira:
 - a) Barneratze-proben auditoretza (pentesting).
 - b) Gardentasuna.
 - c) Gakoak zifratzea eta kudeatzea.



d) Datuen jurisdikzioa.

- Hirugarrenek emandako hodeiko zerbitzuak erabiltzen direnean, horiek Informazio Teknologien Segurtasuna Ebaluatze eta Ziurtatzeko Eskema Nazionalaren Ziurtapen Organismoak aitortutako ziurtapen-metodologia baten bidez ziurtatuta egon beharko dute.
- Zerbitzu horiek ematen dituzten sistemen segurtasun-konfigurazioa segurtasun-konfigurazio espezifikoko CCN-STIC gidaren arabera egin beharko da, erabiltzaileari zein hornitzaileari zuzenduta.

Beraz, CSPk egiaztatutako erakunde batek emandako goi-mailako zigilua duela bermatu behar du. Jakina, ENS ziurtagiriaren irismenak lizitazioaren xede den zerbitzua barne hartu behar du.

14. KONFIDENTZIALTASUN-KONPROMISOA

Adjudikaziodunak berariazko obligazioa du denbora mugagabea kontratua betetzean ezagutu dezakeen datuen inguruko konfidentzialtasun eta sekretu osoa gordetzeko, bereziki, datu pertsonalak edo sentikorrak badira, baita ere xehetasun teknikoak, segurtasun-planak, zaurgarritasunak edo azpiegituren osotasunari edo funtzionaltasunari eragin dakiekeen informazioa. Aurrekoak ezingo ditu plegu honetan jasota ez dauden bestelako xedeetarako erabili eta ezingo ditu kopiatu, ezta beste batzuei gordetzeko utzi ere.

Adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzailleak erabilitako datuen zein emandako informazioaren eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzeko neurrien deskribapen-memoria aurkeztuko du. Era berean, memoria horretan sartu beharko du nork izango duen baimena BBUPrekin harremanetan egoteko materiala eta informazioa zuzen erabiltze aldera, enpresaren erantzukizun propioa gorabehera. Konfidentzialtasuna gordetzeko obligazio hori kontratua suntsitzen bada ere mantendu egingo da, informazioak konfidentziala izateari utzi arte edo BBUPk baimena eman arte.

Sektore publikoaren kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 hogeita bosgarren xedapen osagarriarekin bat etorritik, adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan xedatutakoa. Gainera, 2016/679 Erregelamenduaren 28. artikuluan xedatutako kontratura atxikiko da kontratua formalizatu eta hilabeteko epean.



A. ERANSKINA. PLATAFORMA TEKNOLOGIKOAREN BALDINTZAK

A. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Adjudikaziodunak lizitazio honen xede den software-plataformari buruzko honako zerbitzu hauek eman beharko ditu, eta prozedurak, bitartekoak eta tresnak deskribatu beharko ditu bere eskaintzan, bai eta zerbitzu horiek emateko gaitasuna eta kalitatea ebaluatzeko beste edozein informazio ere.

Laguntza erreaktiboko zerbitzuak.

Laguntza erreaktiboko zerbitzuen helburua da BBUPren inguruneetako softwareen oinarri-gorabehereri eta erabilera-arazoei berehala erantzutea eta konponbide azkarra ematea.

Enpresa adjudikaziodunak laguntza-zerbitzuak eman beharko ditu, software-aldaketak eginez arazo teknikoak konpontzeko, hala behar izanez gero. Garapen horiek agiri honen xede diren ekipoen fabrikatzailearen berme ofiziala izan behar dute.

Zerbitzuak barne hartu beharko du BBUPri edo horrek ezartzen dituen langileei aplikaziorako adostutako erabilera-tartean laguntzea. Telefonoz, elektronikoki edo aurrez aurre egin ahal izango da eta SLA ataleko baldintzak bete beharko dira.

BBUPren barruan sistemaren bat instalatu behar bada, enpresa adjudikaziodunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Onartzen den sistema eragilea.
- Antibirus-sistema.
- Sistemak etengabe eguneratzea segurtasunari dagokionez.

Laguntza-aldian gerta litezkeen matxurak konpontzeko eskulana, joan-etorriak eta materiala barne hartu behar ditu laguntzak, eta ez du kostu gehigarririk izango BBUPrentzat. Arazoa konpontzeko behar diren eguneratzeak ere jaso beharko ditu.

Laguntza proaktiboko zerbitzuak.

Planifikatu gabeko inaktibitate-aldiak, zerbitzu-degradazioak edo bestelako arazoak prebenitzeko, ekipotetan instalatutako softwarea monitorizatu beharko da; hartara, anomaliak detektatuko dira eta proaktiboki konpondu ahal izango dira, sistema erabat erori aurretik.

BBUPk beharrezkotzat jotzen badu, sistema monitorizatu ahal izateko behar diren tresnak eman behar dira.

Beraz, enpresa adjudikaziodunarekin harremanetan jarri ahal izango da, aplikaziorako adostutako erabilera-tartean antzemandako gorabeherak konpon ditzan.

Adjudikaziodunaren ardura izango da monitorizazio-parametroak, atalaseak eta jarduketa-prozedurak definitzea, kontratuaren SLAk bete daitezen eta agenteek zuzen funtzionatu dezaten.

Laguntza prebentiboko zerbitzuak.

Zerbitzu prebentiboen helburua sistemen erabilgarritasuna ziurtatzea da, softwarean izan daitezkeen arazoei aurrea hartuta.

Adjudikaziodunak gutxienez honako jarduera hauek bete beharko ditu urtean behin:

- Segurtasun-eguneratzeak.
- Software-eguneratzeak. Software-produktu guztiak laguntza-aldiaren barruan egongo dira.

Gainera, hiru hilean behin adjudikaziodunak hardwareen eta sistemen errendimenduaren, eskuragarritasunaren eta gaitasunaren txostena entregatu beharko du.

Zerbitzuen baldintza osagarriak



Enpresa adjudikaziodunaren lantaldea sistemetara konektatu ahal izango da gorabeherak konpontzeko edo zereginak urrutitik egiteko. Konexio hori BBUPk emandako arauen arabera egingo da.

Orokorrean, adjudikaziodunak BBUPren segurtasun-arauak, konfigurazioak eta lanak onartu beharko ditu.

Adjudikaziodunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du plataformarekin batera:

- Proiektuaren dokumentazioa: instalazioa egoitzaren arabera eta produktuen dokumentazio espezifikoa, beharrezkoa bada.
- Eragiketaren dokumentazioa: Eragiketaren prozedurak, pasahitzak eta azpiegiturak funtzionatzeko elementuak.

Informazio hori euskarri digitalean eta adjudikaziodunak eskainitako online-plataforma batean eskuragarri egon beharko da, BBUPk egokitzen joz gero.

Agiri horiek entregatzeko plangintza egon beharko da eta adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du.

Inbentarioko produktu guztiak altan emanda egon beharko dira BBUPren CMDBn.

BBUPk plataformaren fakturazioa lanak eta zerbitzuak zuzen entregatzeari lotuko dio. Dokumentazioa eta CMDB eta orokorrean BBUPren lan egiteko modura egokitzea baldintza izango dira lanak eta zerbitzuak egin izana onartzeko.

Positiboki baloratuko dira adjudikatzailerak plataforma osatzen duten produktuen fabrikatzaileekin dituen hirugarren mailako laguntza-kontratuak.

Adjudikaziodunak baldintza hauek errespetatuko ditu programatutako geldialdiei dagokienez:

- BBUPren adostasuna eskatzeko, hiru egun lehenago abisatzea. Abisuan geldialdiak gutxi gorabehera zenbat iraungo duen adieraziko da.
- Programatutako jarduketaren dokumentua aurkeztu beharko da, atzera-martxaren xehetasunekin, zerbitzu-geldialdia badago edo jarduera arriskutsua edo konplexutasun handikoa bada.
- Lehentasunez gauetan egingo dira lanak, aplikazioaren lanalditik kanpo, edo aurrekoa 7x24 bada, gaueko 23:00etatik goizeko 07:00etara.

B. ZERBITZUAK EMATEA

Adjudikaziodunak eskaintzan adierazi beharko du zein lantalderekin emango dituen eranskin honetan deskribatutako zerbitzuak. Adjudikaziodunak irtenbidearen teknologia bakoitzerako adituak izan beharko ditu. Baliabide horietarako guztietarako profil profesionalak, proiektuan parte hartzeko rolak eta prestazioaren modalitatea jaso beharko dira (kokapena, proiekturako dedikazioa, prestasuna, harremanetan jartzeko modua...). Adituen kasuan, esperientzia egiaztatzeko ziurtagiriak, ikastaroak, esperientzia eta abar aurkeztu beharko dira.



B ERANSKINA. BEZEROAREN BALDINTZAK

Bezeroak Zero-Touch izan behar du. Bezeroaren instalazio/konfigurazio orok autokontenitua izan behar du, eta ez du eraginik izan behar PCaren portaera orokorrean eta beste aplikazio batzuetan. Adjudikaziodunak instalagarri isil bat eta dagozkion eskuliburuak aurkeztu beharko ditu. Produktuaren bertsio bakoitzarekin egin behar da hori, modu proaktiboan egin ere, baita Microsoftek argitaratzen duen Windowsen sistema eragilearen bertsio bakoitzarekin ere.

Aplikazioak BBUPren gainerako aplikazioekin eta haren gailuetan funtzionatu beharko du, baita horrek langileei telelanerako soluzioak eman ahal izateko ezartzen dituen birtualizazio-plataformetan ere. Adjudikaziodunak BBUPri lagundu beharko dio, bere aplikazioak testuinguru horietan funtziona dezan.

Aplikazioa bezeroen software honetan exekutatu beharko da.

- Windows 10 Pro 64b (atzera-bateragarritasunarekin) edo berriagoa.
- Google Chrome 120.0.6099.201 bertsioa (Build oficial) (64 bit), atzeranzko bateragarritasuna duena. Hori da BBUPren oraingo nabigatzaile korporatiboa, baina aplikazioak HTML5 onartzen duten nabigatzaile guztietan funtzionatu beharko du, aplikazioaren estandarizazioa ziurtatzeko, batetik, eta nabigatzaile korporatiboa BBUPtik aldatzeko aukera ziurtatzeko, bestetik.

Aplikazioak PC eta Mac OS mota guztietan funtzionatu beharko du.

Mugikortasun-irtenbidea BBUPk ezarritako baldintzetara egokitu beharko da.

Bezero-softwarea edo osagaiak erabiliz gero (beste testu-prozesadore batzuk, kalkulu-orriak, ziurtagiriak...), zehaztu egin beharko da, eta BBUPk beste produktu batzuegatik aldatzeko eskatu ahal izango du, batez ere proposatutakoek BBUPrentzat kostua badakarte. Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du produktua proaktiboki software-bertsio berrietara egokitzeko, softwarea laguntza-alditik kanpo geratu aurretik.

Adjudikaziodunak eranskin honetan aipatutako bezeroen, softwarearen eta hardwarearen baldintzen xehetasunak entregatuko ditu.



C ERANSKINA. CURRICULUM-EREDUA

Datos Comunes

Apellidos y nombre:	
Categoría (en la empresa):	
Empresa de pertenencia:	
Responsabilidad Proyecto (Según oferta)	
Dedicación Proyecto (horas)	

Antigüedad en categoría y experiencia genérica

Empresa	Categoría	F- alta	F- baja	Meses	Actividad

Formación específica relacionada con el concurso

Curso	Horas	Centro / Empresa	Fecha exped.

Titulación académica

Título académico	Centro	Años	Fecha exped.

Años: Duración oficial

Experiencia en proyectos de sistemas y tecnologías dentro del Sector del Agua

Clave	Nombre	F-inicio	F-fin	Entidad usuaria	Descripción
P1					
...					
Pn					

Experiencia en proyectos relacionada con sus funciones dentro del equipo de trabajo

Clave	Nombre	F-inicio	F-fin	Entidad usuaria	Descripción
P1					
...					
Pn					



D ERANSKINA. BBUP-REN JABETZAKOAK EZ DIREN GAILUEKIN SARERA KONEKTATZEKO BALDINTZAK

A. ADJUDIKAZIODUNAREN LANGILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

BBUPren jabetzakoa ez den PC edo ordenagailu eramangarri baten bidez BBUPren sarera konektatzen diren guztiek zuzentarau hauek bete beharko dituzte:

1. Enpresak langileei BBUPren sarerako, sistema eragileetarako eta aplikazioetarako egokia den gailua eman beharko die.
2. Gailuak IP finkoa izan beharko du.
3. Gailuak S.O. bat izan beharko du fabrikatzailearekin funtzionatzen duen bertsioan.
4. Gailua eguneratuta egon beharko da segurtasun-adabaki guztiekin.
5. Gailuak beti izan beharko du aktibo BBUPren antibirusa. Lizentziak eta instalazioa BBUPren kontura izango dira.
6. Gailuaren gainerako alderdiak administratzea langilearen kontura izango da. Langileak konpromisoa hartzen du BBUPren sistemen eta sareen segurtasuna arriskuan ez jartzeko.
7. Enpresak eta langileek konpromisoa hartzen dute BBUPren segurtasun-arauak betetzeko.
8. Langileek gailuan BBUPk egokitzen jotako segurtasun-neurri guztiak aplikatu beharko ditu. Langileek administratzaile-baimena eman beharko diote BBUPk agindutako teknikariei, gailuaren segurtasun-berrikuspenen bat egin behar izanez gero.
9. Langileek funtzioak betetzeko behar dituzten aplikazioak enpresak eman, instalatu eta mantenduko ditu, salbu eta alderdi biek behar bezala justifikatu eta onetsitako salbuespenak. BBUPk ez du enpresak emandako baliabideen eta horien lizentzien egoeraren gaineko erantzukizunik.
10. Langileek BBUPren ADren erabiltzailea izango dute.
11. Langileek BBUPren irudia eskuragarri izango dute, garapenak erabiltzaileek duten inguru zehatzean probatu ditzaten.
12. Langileek VPNren bidez babestutako sistemak erabili beharko dituzte.
13. Enpresak langile bakoitzari nahitaez banan-banan jakinarazi beharko dizkio obligazio horiek eta betetzearen arduraduna izango da.

Bilbon, 2025eko azaroaren 12an

Kontratuaren arduraduna

Unai Gobantes Herrero

Informatikako zuzendariordea

Santiago Guillen López